


RCEME Bizkaia

# Leuzemiak Bizkaian. 1986-2013.

(ICD 10: C91-95)

2016ko bigarren hiruhilabetekoaren txostena



B zelulen leuzemia linfoblastiko akutua (Wright)

*Tumore hematologikoen ezaugarri bereziek minbizi erregistroetarako erronka berezia suposatzen dute. Hauen diagnostiko eta tratamendurako bestelako ibilbide sanitarioak erabiltzen dira eta sarritan berandu arte ez dute Ospitaletako erregistroetan agertzerik.*

*Bestalde, etengabeko aurrerakuntza eman da minbizi hauen ezaugarrien zehaztapenetan eta honek ondorioak izan ditu erabili ohi diren sailkapenetan; RCEMEn erabiltzen den ICD-O-3an hainbat sailkatze-irizpide aldaketa eman dira azken urteetan.*

*Beraz RCEMEk minbizi hauei buruzko jasotako informazioak, hein batean aurreko zailtasunen ondorioz, guztiz ez osoa izateko arriskua du. Beraz hurrengo datuak interpretatzerakoan aurreko guzti hau kontutan hartu behar da.*

## Leuzemiak Bizkaian


### INTZIDENTZIA

Euskadiko Minbizi Erregistroa (RCEME) ezarri zenetik, datu osotuz eskuragarri dugun urtera arte, hau da 1986tik 2013ra arte, Bizkaiko biztanlerian 3665 leuzemia erregistratu dira.

Sexuen arteko banaketari dagokionez 2106 (%61) gizonetzkoengan diagnostikatu dira eta beste 1559ak (%39) emakumeengan.

Bizkaian leuzemiak 2013. urtean erregistratutako minbizi guztien %2 izan ziren; proportzio hau mantentzen da bai gizonetzkoen minbiziengan baita emakumezkoen minbiziengan.


2013ean intzidentzia tasa gordina gizonengan 16,55 kasu/100.000ko izan zen, eta 10,08 kasu/100.000ko emakumezkoengan. Intzidentziaren goranzko bilakaera izan du, gizonetzkoen %1,23 Urteroko Aldatze Portzentajea (UAP) zuten 2013. urtera arte eta emakumezkoen tasak, %0,93eko UAPaz igo egin dute 1986tik.



TG: Tasa Gordina; TE: Tasa Estandarizatua (Europar populaziora); UAP: Urteroko Aldatze Portzentajea. (\*: estatistikoki esanguratsua)


Beste herrialdeekin konparatzeko Europako populazioari doitu dira tasak. Bizkaiko tasa estandarra 12,55 kasu/100 000 biztanleko zen gizonezkoengan eta 6,65 kasu/100.000 emakumeengan zen 2013an. Bizkaiko tasok Europako herrialdeekin konparatuta agertzen ditugu hurrengo grafikoan.

**Leuzemien intzidentzia eta hilkortasuna. Europako herrialdeetako tasak eta Bizkaikoak**  
**Tasa estandarrek 100 000 biztanleko; adin guztiak.**




Iturria: EUCAN (IARC/OME). 2012rako intzidentzia proiektzioak. Erreferentzia-populazioa: Europa. Bizkaiko datuak: RCME (2013)

Hurrengo mapetan European leuzemien 2012rako estimatutako intzidentzi tasen banaketa agertzen dugu.




iturria: EUCAN (MOE). 2012rako intzidentzia-proiektzioak. Tasa Estandarrak (erreferentzia populazioa: Europa).

Bizkaiko Tasa Estandarrek, munduko populazioari doitzean hurrengo datuak ematen dituzte 2013rako: 10,59 kasu / 100.000 biztanleko gizonengan eta 5,30 kasu / 100.000 biztanleko emakumeengan. Hurrengo Mapetan intzidentzi tasak herrialdeka agertzen dira.



Iturria: GLOBOCAN (OME). 2012rako intzidentzia proiektzioak. Erreferentzia-populazioa: Munduko Pop.l

Bizkaian bertako espazioaren arabera banaketa aztertzeko Erakunde Sanitario Integratuekiko (ESI) kalkulatu ditugu tasak. Zenbaki txikiez ari garenez tasak nahiko aldakor agertzen dira; tasen ezegonkortasuna leuntzeko azken bost urteko batez bestekoak erabili ditugu hurrengo mapetan.




Iturria: RECEME. 2009-2013 tasa estandarizatuaren urteroko batez bestekoak. Erreferentzia-populazioa: EAE


ESletako leuzemien bilakaera aztertzeko, hauen tasak 5 urtetako batez-besteko mugikorren bitartez leundu ditugu.

Hurrengo grafikoetan agertu bezala tasak goranzko joera izan dute 90. hamarkadatik aurrera, bai gizon zein emakumeengan.


ESlen arteko alderaketa egitean ez dira estatistikoki esanguratsuak diren alderik antzematen.




EAEko populazioari doitutako tasetako 5 urteko batezbesteko mugikorrek. EAEko tasetako %95eko konfidantza tartekak.



EAEko populazioari doitutako tasetako 5 urteko batezbesteko mugikorrek. EAEko tasetako %95eko konfidantza tartekak.




RCEME - Euskadiko Minbizi Erregistroko datuak; Tasa ± desbideratze estandarra; Tasa estandarizatuak, bosturteko batz bestekoa: erreferentzi populazioa: EAEko gizonzkoak 1989-2013 (EUSTAT)



RCEME - Euskadiko Minbizi Erregistroko datuak; Tasa ± desbideratze estandarra; Tasa estandarizatuak, bosturteko batz bestekoa: erreferentzi populazioa: EAEko emakumeak 1988-2012 (EUSTAT)

Hurrengo grafikoan RCEMEn erregistratutako Bizkaiko leuzemien banaketa azaltzen da adin taldeen arabera. Adin taldeen banaketan haur eta gaztaroko kasuak agertzen dira. Gizonezkoen tasak, ia adin talde guztietan emakumezkoen tasen gaitetik daude.



\*Adin taldeko tasa espezifikoak, erregistratutako azken hamar urteetako tasa espezifiko metatuak.

## TOPOGRAFIA

Leuzemia oro, berez hezur muineko tumore bezala erregistratu ohi da.


## HEDADURA, DIFERENTZIAZIOA ETA TUMOREEN MORFOLOGIA

Leuzemiak, sistema hematopoietikoko tumoreak, tumore solidoek ez bezala sailkatzen dira hedadura, diferentziazioa eta morfologian.

### Hedadura

Hedaduraren kontzeptua ez da aplikagarria leuzemien kasuan, barreiatuak diren tumoretzat hartzen dira leuzemiak.


### Diferentziazioa



Leuzemien diferentziazio maila, zelulen leinua, erregistratutako kasuen erdian baino gutxiagotan jaso egin da. Jaso denean, leuzemien diferentziazio mailan %95 B edo pre-B zelula motakoak dira eta %4 T zelulak.

### Morfologia

Erregistroaren urteetan aurreratu ahala leuzemien morfologiak zehaztuagoak azaltzen dira. Urtez urte morfologia taldeen banaketaren arabera leuzemia mieloideak eta linfoideak pareko tartea hartzen dute banaketan.



Hurrengo taulan morfologiaren banaketa zehaztuagoa agertzen dugu; Gaixotasunen Nazioarteko 10. Sailkapenaren arabera:

## Leuzemien morfologia. RCEME Bizkaia 1986-2013

Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena-(GNS10) arabera\*


Leuzemiak, BZG (GNS-O-3: 980)	
C950 Zelula-tipo zehaztugabeko leuzemia akutua / Blastozitoena / Leinu-zelulena / Stem zelulena	165
C959 Leuzemia, zehaztugabea	179
Leuzemia linfoideak (GNS-O-3: 981-983)	
C910 Leuzemia linfoblastiko akutua	385
C911 Leuzemia linfositiko kronikoa	1326
C913 Leuzemia prolinfositikoa	17
C915 Helduen T-zelulen leuzemia	10
C919 Leuzemia linfoidea, zehaztugabea	30
Leuzemia mieloideak (GNS-O-3: 984-993)	
C920 Leuzemia mieloide akutua	709
C921 Leuzemia mieloide kronikoa	349
C923 Sarkoma mieloidea / Kloroma / Sarkoma granulozitikoa	5
C924 Leuzemia promielozitiko akutua	129
C925 Leuzemia mielomonozitiko akutua	50
C929 Leuzemia mieloidea, zehaztugabea	29
C930 Leuzemia monozitiko akutua	62
C942 Leuzemia megakarioblastiko akutua	6
C944 Panmielosi akutua	2
Bestelako leuzemiak (GNS-O-3: 994)	
C914 Zelula ilelunen leuzemia / Erretikuloendoteliosi leuzemikoa	68
C921 Leuzemia mieloide kronikoa	144
<b>Total orokorra</b>	<b>3665</b>

\*Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapen Onkologikoaren 3. bertsioetik (GNS-O-3-tik) GNS-10era itzulia

## BIZI-IRAUPENA


5 urterako bizi iraupen aktuarial eta erlatiboaren estimazioak kalkulatu eta urteetako bilakaera aztertu dugu.

5 urterako bizi-iraupena %50aren ingurukoa da; ez da sexuen arteko desberdintasunik antzematen, eta 2000tik 2009rako bizi irautearen hobekuntza apala da; tendentzia leuna da.






Hurrengo grafikoan leuzemien urtez urteko bizi iraupena:



### HILKORTASUNA

Grafikoan azken urteetan erregistratutako leuzemiengatik hildakoak eta dagozkien tasa estandarizatuak agertzen ditugu. Hilkortasuna GNS-10ez kodetua dago, hildako kausen artean hurrengoak jaso dira: C91-95.



TG: Tasa Gordina; TE: Tasa Estandarizatu (Europar Populazio berrira); TE(z): Tasa Estandarizatu (Europar Populazio zaharra)

Hildakoen kopuruak eta tasak txikiak eta aldakorak dira, ezin daiteke joerarik antzeman.